

VITAL FUNDAZIOA EMAKUMEZKOEN SASKIBALOI **TXAPELKETEN OINARRIAK**

Antolatzailea: Vital Fundazioa da txapelketaren antolatzailea, eta Araban emakumezkoen kirola sustatzeko duen programaren barruko ekimena da hau.

Helburua: Emakumezkoen kirola sustatzea, batez ere, 9 eta 16 urte bitarteko nesken artean, Vitoria-Gasteizen eta Araban. Emakumezkoen kirola sustatzea, eskolaz kanpoko jarduera den aldetik ez ezik, lanerako irtenbide izan daitekeen aldetik ere, joko garbia eta lehiakortasun osasuntsua sustatuz.

Kategoriak eta adinak: Taldeek 9 eta 16 urte bitarteko neskez osatuak izan behar dute oso-osorik. Honako hauek izango dira kategoriak: Benjaminak; Alebinak; Infantilak; Kadeteak. Onartu egingo da jokalaria bat bere adinaren arabera dagokion maila baino hurrengo goragoko mailan dagoen talde batean sartzea. Ez da alderantzizko kasurik onartuko, hau da, jokalaria batek adinez dagokion maila baino beheragoko mailan batean jokatzea. *

***Salbu eta, kasu jakinen batean, antolakuntzak kontrakoa erabakitzen badu.**

Jokalekua: Antolatzaileek txapelketa bakoitzerako zehazten dituzten ezaugarriez markaturikoa izango da. 8x8 m-ko lurrazal erregularra izango da. Saskiak: behe-mailako kategorietan 2,60 m eta maila ertain eta goi-mailetakoak 3,05 m.

Osasun estaldura: Ez txapelketaren antolatzaileek, ez ekitaldia egingo den instalazioak, ez dute euren gain hartuko parte-hartzaileen egoera fisikoaren ardurarik, ezta lesio baten kasuan gerta litekeenaren gaineko erantzukizunik ere.

Txapelketaren arauak:

Jokalekua: 8 x 8 m-ko zelai baten instalazioek mugatutakoa izango da edo ezaugarri bereko hesi batzuek mugatutakoa.

Sasi bakarraz jokatu da.

Partidu bakoitzaren iraupena: 10 minutu etenik gabe, ez da geldituko ezta tiro libreetan ere. Partidu guztiak era batera hasi eta amaituko dira.

Jokalari kopurua taldeko: 3 jokalaria + ordezko 1.

Jokalariek jokorako arropa egokiak jantziko dituzte.

Antolakuntzak emango dizkie jokalariei lehiaketan erabiltzeko petoak.

Txapelketan parte hartzen duten jokalariek Araban bizi behar dute edo Arabako klub edo ikastetxe batekoak izan.

Puntuak: Saskiratze guztiek balioko dute puntu 1, tripleko lerroaren atzetik botata lortzen direnek izan ezik, horiek puntu 2 balioko baitute. Partidu bakoitzean puntu gehien metatzen duen taldea izango da irabazlea.

Partidua berdinketan amaituz gero, une horretan talde bakoitzetik jokatzen ari diren hiru jokalariek tiro libre bana jaurti beharko dute, eta saskiratzen gehien lortzen dituen taldeak irabaziko du. Hori eginda, berdinketak jarraituz gero, “garaipen saskiratzearen” sistemari ekingo zaio, jokalaria bakoitzak behin jaurtiko du eta behin baino ez.

Baloia edukitzeko denbora 20 segundokoa izango da eroso egiteko.

Partidua hasteko ez dago jauzirik, zozketatu egingo da edo “bikoitiak ala bakoitiak”.

Edukitza-aldaketa, eraso-errebote edo berreskuratutako baloi bakoitzaren ondoren, baloiak tripleko lerroa baino urrunagotik irten beharko du saskiratze aukera izan baino lehen. Hiruko lerrotik irten barik saskiratuko balitz, puntua ezeztatu egingo da eta edukitza kontrako taldearentzat izango litzateke.

Saskiratze bakoitzaren ostean, baloia beste taldearen eskuetara joango da eta joko berriz hasiko da zelai erdiko lerroaren atzetik, pase baten bidez.

Inoiz ez da bandatik aterako, beti zelai erditik, nahiz eta baloiak bandatik edo fondotik irten.

Faltak: Jokalari bakoitzak partidu bakoitzean egin dezakeen falta pertsonal-kopurua 6koa da. Behin 6ak eginda, taldea bonus-ean sartuko da eta kontrakoak tiro libre bat izango du. Faltak ez dira partidu batetik bestera metatzen.

Mahaia baino ez da egongo, ez dago epailerik. Jokalarik beraiek egin behar dute epaile-lana, eta zalantzarik balego, mahaiko epaileak erabakiko luke.

Jokalariak eta ordezkoak truka daitezke edozein unetan, beti ere zelaian 3 jokalaria baino ez badaude.

Antolakuntzak zehaztuko ditu partiduen ordutegiak.

Antolakuntzak eta bere diziplina batzordeak beretzat gordetzen dute araudia betetzen ez duten jokalariak edo taldeak botatzeko eskubidea.

Sariak: Parte-hartzaile guztiei oparituko zaie motxila bana, edaria eta programaren kamiseta bat. Gainera, txapelketaren irabazleek opari gehigarria eta domina ere jasoko dituzte.